# EUSKARALDIA Hondarribian antolatzeko parte-hartze prozesua

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean **Euskaraldia**, *11 egun euskaraz* ekimena gauzatuko da Euskal Herri osoan. Blagan Euskara Elkarteak eta Hondarribiako Udalak ekimena gure herrira ere zabaltzea nahi dugu, eta nola egin erabakitzeko parte-hartze prozesua antolatu dugu.

Parte-hartze prozesu hau euskararen erabilera areagotzeko urratsak eman nahi dituzten herritar guztiei zuzenduta dago, eta bi saio izango ditu:

- 1. saioa: OTSAILAK 6 (asteartea) 18.00etan KULTUR ETXEAN.
- 2. saioa: OTSAILAK 20 (asteartea) 18.00etan KULTUR ETXEAN.

Saio horietan **Euskaraldia** Hondarribian nola antolatuko dugun irudikatuko dugu partaideek, eta behin parte-hartze prozesua amaitutakoan herrian emango ditugun hurrengo urratsak zeintzuk izango diren erabakiko dugu.

Parte hartu nahi al duzu?

| | | |
|---|---|---|
| ☐ Bai, prozesuko 2 saioetan parte hartu nahi dut. | ☐ Euskaraldia *11 egun euskaraz* ekimenaren baitan laguntza puntuala eman nahi dut. | ☐ Oraingoz, informazioa jaso nahi dut. |

Izen-abizenak

Helbide elektronikoa

Telefonoa

Eskaerako datu pertsonalak interesatuaren onespenez jasotzen dira eta Hondarribiako Udalak tratamendu automatizatua emango die, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (datu pertsonalak babestekoa) izapidetutakoa jarraituz. Interesatuek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Hondarribiako Udalaren aurrean.